

BURUZ ala BURUZKOAK

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an.

Jesus Mari Makatzaga
Gramatika batzordeko idazkaria

Ainhoa Segura andrea. Leintz Euskaltegia.

Segura andrea, agur:

Zuregandik jaso ditugun galdera batzuen erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez.

- a. *Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruz? Ala Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruzkoak?* Biak ondo.
Komentario asko entzun dut gai horri buruz ala Komentario asko entzun dut gai horri buruzkoa. Lehendabizikoa ondo; bigarrenak buruzkoak behar du.
Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruzkoak dira ala Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruz dira. Biak ondo.

Era horretako perpausetan bi aukerak (*buruz* nahiz *buruzkoak*) ondo daude Gramatika batzordearen ustez; hori bai, betiere izenlaguna atzeratzen zaion izen sintagma absolutiboan delarik. Ezinezkoa baita honako perpaus hau egitea:

**Liburu batean irakurri dut nazionalismoari buruz.*

Absolutiboan doalarik, bai, ordea:

Liburu bat irakurri dut nazionalismoari buruz.

- b. Norekiko birdeklinabidea, izenlaguna denez, beti izenaren aurrean jarri behar dugu? Hau da, *Errespetu handia du gurasoekiko* edo *Gurasoekiko erakusten duen errespetua* bezalako esaldiak oker daude?

Ez dugu uste *-kiko*-k nahitaez izenlagun izan behar duenik, badira-eta hor ematen dituzuen adibideak bezalakoak, eta ez gutxi, euskararen literatur tradizioan. Ez genuke esango beraz, horko adibideak txarrak direnik. Hori bai, iparraldeko tradizioan, *-kilako* (*-kiko*-ren baliokidea) sistematikoki erabiltzen da izenlagun gisa; ez du adizlagun erabilerarik. Hegoaldeko tradizioan ere, esan dugun bezala, adizlagun erabileraren lekukotasunak badiren arren, izenlagunarenak askoz ere ugariagoak dira; alegia, *Gurasoekiko errespetu handia dut* edo *Gurasoekiko harremanak hoztu egin dira aspaldion*.

- c. *Nongo(a), norenganako(a), norekiko(a), buruzko(a), aldeko(a), kontrako(a)* ... kasuek izenak kenduz gero, *-a* mugatzailea hartzen dute. Norentzako eta norako kasuek ere har lezake mugatzailea? Hots, *amarentzako*a edo *gelarako*a esateari zuzen deritzozu?

Bai; ezin esan dezakegu horiek biak agramatikalak direnik. Hori bai, oso emankorrak ez direlakoan gaude. Izan ere, logikaren arabera horiek erabil badaitezke ere (eta erabili ere egin izan dira), eguneroko jardunean horiek baino arruntagoak diren formak erabili izan dira askoz sarriagotan; hala nola, genitiboa (*amarena*), adizlaguna (*amarentzat*) nahiz *-ko* atzizki hutsa (*gelakoa*).

Alegia,

Oparien artean, zein da amarentzakoa? Baina gehiago, Zein da amarena?

Oparien artean, zein da amarentzakoa? Baina gehiago, Zein da amarentzat?

Gortinetan, zein da gelarakoa? Baina gehiago, Zein da gelakoa?

Besterik gabe; zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.